

BARRREN

1998ko abuztuaren 29a
Ale berezia



azkue

13:00etan, Jose Mari Oruesagasti alkateordeak eman zien hasiera San Bartolome jaiak. Halere, ohiturari jarraiki, arratsaldeko 15:00etan hainbat eta hainbat herritar elkartu ziren Giza Eskubideen enparantzan txupinazo tradizionalan parte hartzeko. Aurten, lehenengo aldiz, Udalak ordaindu ditu txafliuak eta aseguru eta, dirudienez, datorren urtean egitarau ofizialean sartzeko asmoa dago.

Haritz Dantzari Taldeak 25 urte

Jaietako protagonistetariko bat Haritz Euskal Dantzari Taldea izan da. Abuztuaren 22an Haritzen historia jasotzen duen argazki erakusketa inauguratu zen. Hilaren 23an, berriz, Salbearen ostean, Udal Areto Nagusian 25 urteotan aritu izan diren txistulari eta dantzari harrera egin zitzaion. Ekitaldian, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak oroigarri bat eman zion Dantzari Taldeari eta Udalak Urrezko Garaikurra ezarri zion Taldeko zuzendariari. Halere, San Bartolome Eguna izan zen bereziena. Aurten 25 urte bete dira Haritz Taldeak estreinakoz Soka-Dantza dantzatu zuenetik. Hori dela eta, orduko dantzariak eta gaurkoek elkarrekin dantzatu zuten Soka-Dantza. Era berean, Musika Bandak Haritz eskainitako oroigarriaz gain, Udalak, Lourdes Odriozolak urteotan egindako lana errekonozitu zuen herritarren aurrean eta dantzarien artean ere izan zen oroigarrien elkartruketa.



TEXTIL
HOGAR
LAGUNA

Orain San Roke

EGONDO, s.l.

ERAKUNTZA METALIKOAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

- Armairuak, panelak eta mahai elektrikoak
- Armairuak, baseak eta makinaren bandejak
- Depositoak, segurtasunerako babesgailuak, etab. (plano bidez)

Olasope, 3 • Tel: 943 74 34 04/74 32 12 • Faxe: 943 74 34 08

**ASESORIA
GO/AR**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome, 1 • Tel: 943 74 26 74/02 34 Faxe 943 74 21 29

1998.

urteko San Bartolome jaien Bezpera, San Bartolome, Txiki eta Umeen Egunetan zehar jasotako hainbat irudi bildu ditugu bi orrietan. Badakigu, beste zenbait ekintza ere izan direla, baina, ulertuko duzuen bezala, ezinezkoa da horiek guztiak hain toki mugatuan sartzea, hortaz, adierazgarrienak eta bitxiak iruditu zaizkigunak aukeratu ditugu: Gure-Bide elkarteak antolatutako Txirrindulari lasterketa, Ikurriñari omenaldia, Salbea, Prozesioa, Udal Musika Bandaren kontzertua, Plaza Handiko musika saioa, txoznetako giroa, sokamuturra eta, nola ez, Txiki Eguneko hainbat eta hainbat une. Haez gain, txikientzako entzierroa, Gurutze Gorriak antolatutako futbola zezen enbolatuekin eta Umeen Eguneko marrazki lehiaketa eta bazkaria jaso ditugu. Halere, jaiak ez dira amaitu, beraz, goza eta disfruta ditzagun ahalik eta umore eta giro onenean geratzen diren apurrak. Ondo ibili!



GORRÑO
dekorazioa

*Zure etxea dekoratu nahi baduzu,
gurean aukera zabalena daukazu.*

San Bartolome jai zorientsuak!

San Bartolome, 21 • Tel: 943 74 01 91

MANCISIDOR HERMANOS, C.B.
Mekanizatuak
Mandrinatuak

Planu bidezko piezen fabrikazioa eta mekanizazioa orokorrean.

Ibaitarte, 4
Tel: 943 74 30 55
Faxa: 943 74 29 24

IDARRAGA
KAPEAK

Eguneroko errealdiak
Aupa San Bartolome
eta zorionak, Haritz!

San Frantzisko, 17 • Tel: 943 74 05 33/36 39

Azken txanpa



29, larunbata

Baserritarren Eguna

9:30 Euskadiko Limousin Ganadu Lehiaketan parte hartuko duten ganaduak ikusgai izango dira Aita Agirre Plazan.

10:00 Kalejirak hasiko dituzte Herriko Trikitilari Eskolako ikasleek.

11:00 Sagardo lehiaketa eta dastaketa, Sallobente Elkarateak antolatuta, Foruen Plazan.

12:30 Ganadu Lehiaketan parte hartzen duten abeltzainei ongietorria egingo diete Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Udal Txistulari Taldeak Foruen Plazan.

14:00 Baserritarren anaiarteko bazkaria La Unión Ehiza eta Arrantza Elkaratean.

17:00 Trikitilari Eskolako ikasleen kalejira.

18:00 Ziarda, Meabe eta Narbaizaren bertso saioak Foruen Plazan (euria egiten badu Kiroldegian).

Bukaeran, Epaimahaiak Ganadu Sariketako sari banaketa egingo du Foruen Plazan.

Ondoren, Erromeria Gelatxo orkestarekin, Foruen Plazan.

22:30 Dantzaldia Maixa eta Itziazrekin Foruen Plazan.

Txoznek antolatuta,

01:00 Manifestazioa Madalan hasita.

30, igandea

Jubilatuen Eguna

7:30 Idiarena Herriko Dultzaineroekin.

Ondoren, Sokamuturra Arnoren zezenekin.

Arratsaldera arte, Ganadu erakusketa eta salmenta Aita Agirre Plazan.

12:30 Jubilatuei eskainitako Meza, San Bartolome parrokian.

14:00 Jubilatuen Bazkaria Olaizaga kiroldegian Gelatxo orkestak alaituta.

19:00 Solteko Dantza lehiaketa 14 urtetik beherakoentzat, Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatuta eta Udal Txistulari Taldeak lagunduta.

23:00 Su Artifizialak Zaragozana etxearekin, Lerunen.

23:45 Dantzaldia Elgoibarko Udal Musika Bandarekin, Foruen Plazan.

31, astelehena

22:30 Aire libreko zinea. 'Liberad a Willy' filmea Foruen Plazan Ongarri Zine Klubaren eskutik.

Aterpe

TABERNA

Lagunarteko
afarietarako leku
aproposa

Aupa San Bartolo!

San Roke, 5 • Tel: 943 74 25 95



• Eramateko OILASKO ERREAK
• Hobe aurrez eskatuz gero



NOVAK C.B.

MEKANIZATUAK

San Bartolome jai Zoriontsuak!

Olaso industrialdea, 37 • Tel: 943 74 37 02 • Faxa: 943 74 39 01

Gillermo Garate alkateak kasik hilabete eman du Mendaroko ospitalean ingresatuta abuztuaren 3an izan zuen bizikleta istripua dela-eta. Pelbisa hautsi zuen eta ohean egon behar izan du lau astez. Abuztuaren 22an ospitalera gerturatu ginen eta animoso eta umoretsu topatu genuen.



- **'Aberia' ederra egin duzu.** - Bai. Aldapa behera nihoala, erre-buelta batian, itxuraz, harri txikiak zeuden eta, lurrera jun nintzan. Kolpe muskularra izan zala uste gendun, baina hurrengo egunien ospitalian pelbisa puskauta zeola esan zien. Bizikletia laga bihako det, ze makaleko aberixia izan da. Aurten demaseko ilusiua nakan San Pedrorra igoeria eitzeko baina... Akabo 'Pantani'.

- **Hala ere, animoz ondo.** - Topera! Baina asper-asper einda nao ze jaiki ere ezin dot ein. Batera eta bestera juteko kapaz izateko desiatzen nao eta hemendik ertetzeko, noski. Seguruen, gaur zortzi, (abuztuak 29) etxera bialduko naute.

- **Telefono mobila alboan duzu.** - Kontaktua ez galtzia inportantia da eta eskerrak abuztuan gertau jatan, ze bestela... Orue egunero etortzen da, periodikua ere hemen dao, telefonua jo eta jo,... tarte-ka udaletxia ematen dau honek.

- **Aurten programari begiratzearekin konformatu behar.** - Bai, tar-teka irakurtzen dot gaur hau dao, bihar beste hau.... Zeinek pen-tsauko leuke agurrian neuk idatzitako 'arrazoi bategatik edo bestia-gatik jaixetan egongo ez diazenak...' bete eingo zala eta ni izango nitzala eongo ez zan lenea!

- **Herritarrei zerbait esan nahi?** - Ondo pasa deixela, eta topera disfrutatzeke.



Madalako gunea egitarau ofizialetik kanpo

Gazte Asanbladak bidalitako idatzi batean, Udalak Madalan zergatik ez duen ekintzarik antolatu azaltzen du. Itxuraz, Madalako ekintzak antolatzea proposatu zion Udalak Gazte Asanbladari, horretarako 600.000 pta. eskainiz. Gazte Asanbladaren eta Txoznen bileretan 2.500.000 pta. ko egitaraua osatu eta Udalean aurkeztu zuten. Txoznak prest zeuden diru kopuru bat jartzeko eta Gazte Asanbladak bere kontura antolatuko zituen zenbait kontzertu. Udalak 900.000 pta. eskaini zituen baina Gazte Asanbladakoek aurrera ez jarraitzea erabaki zuten, "eskainitako dirua huskeria" zelako eta "onartzea Udalaren jokoan sartzea delako". Diotenez, "Udalak Madalako gunean dabiltzanei ez die ezer eskaini nahi izan. Madalan antolatu izan dituen ekintzak Plazara eramateaz gain, ez ditu kontuan hartu herriko musika taldeak".



MIRIAM GARCIA
15 urte

Gustatzen zait. Tetrabrik-ak erosten ditugu eta jendeari botatzen diogu ardoa, edozeini. Goitik behera bustita amaitzen dut, baina ez zait ardura. Gero dutxatu, eta listo.



ANA ARRIETA
30 urte


Ardauana ondo baina arrautzena eta irinana gehixegixa. Hori pasada bat da. Ardua botatziana Txiki Eguneko ohitxuria da eta bota ta hartu ein bihar da.



FLORITA OREGI
52 urte

Irina eta arrautzia zikinkerixia da baina ardua ez jata ardura. Lehengo ohitxuria, mahatsana, ez da ikusten eta gaurkuak kanpoko tokixetako kopixia ematen dau.

Zer begitantzen zaizu ardoa botatzeko ohitura?



JOSEBA OSORO
17 urte

Normalian, poteuan hasten gera eta gero, sobratzen dana elkarrri botatzen diogu. Aukeran nahixo dot bestiak bustixak egotia baina beti amaitzen dou ardoz beteta.




JOSU ARRIOLA
32 urte

Gaztien artian nagusixen artian baino gehixo ikusten da, gure artian behintzat, nahiz eta jarraitzen dou ohitxuriakin, gero eta gutxio zikintzen gera.



IÑAKI GIL
40 urte

Oin ikusten dana, litrona eta hoiek ez jataz ondo iruditzen baina kuadrilan eta poteuan, traguaren hondarra elkarrri botatzia bai. Ondo dao kamisetan ardo mantxak eukitzia.



ESTEBAN ODRIA
55 urte

Gehixegixa. Arrautzia eta hori, zikina da. Arduana usadixua da eta ambientia jartzen dau, gu ere horregatik ibiltzen gera, kuadrila arteko giro horregatik.



RAMONA CORBILLON
63 urte

Ohitura da eta ondo iruditzen zait. Nik ez dut parte hartzen, hori ez da edadekoentzat. Txiki Eguna polita da eta gazteek nola pasatzen duten begira egoten gara.

BARREN

1.038/92. ISSN: 1139-1855

Argitaratzailea: Elgoibarko Izarra. **Laguntzaileak:** Elgoibarko Udala, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioa, Goiti eta Danobat. **Zuzendaria:** Ainhoa Lodoso. **Kazetariak:** Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro. **Maketatzailea:** Mikel Cornejo. **Publizitatea:** Miren Moreno. **Banaketa arduraduna:** Imanol Larrañaga. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. **Tirada:** 4.000 ale. **Lege gordailua:** SS-



IDAMA



ILEAPAINDEGIA

✕ ILEAPAINDEGI MISTOA ✕ MAKILIAK
 ✕ EMAZTEGAI/SENARGAIENTZAKO ORRAZKERAK
 SOLARIUMA

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

Santa Ana, 7 ☎ 943 74 40 26 ELGOIBAR

PILAR

arrandegia



San Frantzisko, 32 ■ Tel: 943 74 18 35

BAZAR

desde
100

San Bartolome, 33
Tel: 943 74 35 36

Arantzazu

edergintza

San Inazio, 4
Tel: 943 74 27 35